## 9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzuak funtziona dezan honako hauek dira kontuan izan behar ditugun aspektu garrantzitsuenak:

Alde batetik, ezinbestekoa izango da lotura zuzena eta eraginkorra izatea baserritarren, nutrizionistaren eta informatikariaren artean, gure helburua aurrera eraman ahal izateko.

Bestalde, oso garrantzitsua da aplikazioa eta bere zerbitzuak eguneratuta egotea eta baliagarriak izatea, hortaz, etengabeko mantenua ezinbestekoa da. Gure zerbitzuak izango dituen **jarduerez** gain, menuak sortzea, platerren errezetak eskuragarri jartzea, produktuak sukaldatzeko era desberdinak ematea, produktuen datuak eskaintzea… direnak, beste hainbat aukera ematen ditu, hala nola, ikastaroak, zozketak…

Plataformari dagokionez, bi alderdi bereiz ditzakegu, gestioa eta promozioa. Gestioa aintzat hartuta, etengabeko mantenua oso garrantzitsua denez produktu berri bat ateratzen den bakoitzean honi buruzko informazioa sartuko dugu (nola sukaldatzen den, zein balore nutrizionalak eta mantenugaiak dituen…), bezero berriak datu basean sartu, 10 eguneko doako zerbitzua a…

Plataforma promozionatzeko unean, merkatuan informazioa eskeiniz, sare sozialen bidez eta kartelen bidez egiten dugu.

Aplikazioaren bitartez, bezeroek beren bizitzak errazteko aukera dute, gure zerbitzu azkarrari esker.

**Ekoizpenaren** aldetik, lehen apaitu bezala, gure zerbitzuak menu pertsonalizatuei ematen die lehentasuna.

Azkenik, gure produktuak izan ditzaken **arazoak konp** informatikariarekin arituko gara elkarlanean, aplikazioan edo bezeroei sortzen zaizkien arazoak konpondu ahal izateko.